

Goiko Jaunaren morroia,
besterik ez zera:
Berak agintzean zatoz,
lapurran antzera.

Jesus maitea, nigana
etortzen danean,
ikusi zaitzadala, arren,
Zu, aldamenean,

Ez det merezi, Jaun ona,
nik mesede ori:

nere biotza osoa,
ordez, Jesus, tori.

Niganako zure Erruki
aundia, benetan,
Zure aintzaz, gorapenez
beti Zeruetan,
kanta dezaizudan, Jesus,
maite-bertsoetan.

Jautarkol

UNAMUNO'RI

*«Este donquijotesco
don Miguel de Unamuno, fuerte vasco...»*

A. MACHADO

Goruntz hegira,
Pentsamenaren mugak
jakintza bakanez
urratuz,
errazoia arturik
oiñarrizat ta
elburuz.
Ondogabeko amiltegiz
inguraturik
ibilli ziñan
zintzoki;
bide mukerrak zear,
leza beltzaren
aurrez-aurre
ausarti.

Zalantzak zenitun.
Ta, nola ez?

Illunaldietan ezin
arkiturik.
Argi unetan Jaunakin
ziñalarik.
Noiz argi

ta noiz illun?...
ezin igarririk.
Betikotasunaren
egi,
zure jakintza
sakonak ezin
erabagi.

Gogoz urbilduz,
errazoiz urrinduz;
bien arteko auzia
ezin berezitz.

Zurekiko,
ameskaitz zorabioka,
zerorren huruakin
guduka.

Orrela ere,
Bere billa.

Ezer ezaren
billaketan ain
arduradun?
Etziñan arduratuko
izan ez ba'litz

iñun ;
nunbait delako
ziñan billa,
naiz eta ibili
itun.

Zalantzekin ere
Beraren bearra
zenun.

Otsalar

NEGUA

Norbaiten errukiz,
negute ! biozpera ?

Ederra, beraz, ba-aiz,
negute subera.

Zurdeaz aspertua,
(otso neritxon !)

eta biotzez urtua.

Alege egun guztian,
eta itxaronez itxaron.

Baiña, nori ?

Maiteari ?

Amen bateko udabarri,
zora-ezpanen barre-irri !

Azpian ez al zendun
artu,

negarrez or egoteko
mukizu ?

Oro da usteldu
ta indartsu biztu.

Arras iñáusia,

gero oskolpeko azia.

Arduraz moztua,

lurrera sartua,

barrenez landua,

ez agortua.

Zuzen eretxita,

ondagarri.

Noiz, azalduta,

agertuko ikusgarri

ostendutako udabarri ?

Zertarako ?

Igesteko ?

Legorren ongilleetako.

Agur, udazken goietako !

Negute on,

negute eder,

al gara biaramon.

I beti asper.

Albitz